

IKASLEEN TXOKOA 94. ZENBAKIA

Hernani BHI

DBH 1-2

Egileak:*Goitik hasita ezkerretik eskuinera:**Nahia Alcobilla, Manex Plazaola, Garazi Gurrutxaga, Saray Royo;
behean, Olaia Lete, June Ruiz Belategi, Añes Santamaria, Zuhatz Tapia*

Euskal dantzak

Euskaldunok ez dugu gerriak asko mugitzeko fama handirik, baina dantza egitea gustuko dugu! Eta zuk, gustuko al dituzu Euskal Dantzak? Betidanik izan da oso ohikoa dantza hau Euskal Herrian. Baina, nolakoa izan zen honen hasiera? Horrez gain, Euskal Herri osoan ez dira beti dantza, jantzi edo dantzari kopuru berdinak erabiltzen. Mila kolore eta motatakoak daude eta! Euskal dantzek, badute beraien festa partikularra ere: *dantzari eguna*. Euskal Herri osoan ezaguna!

Murgildu Euskal Dantzen munduan. Bidaia ona izan, eta disfrutatu!

Historia

Euskal Dantzak betidanik izan dira oso ohikoak Euskal Herrian, belaunaldiz belaunaldi mantendu izan dira gure tradizioan. Zati garrantzitsu bat izan dira dantza tradizionalan, gizarte bizitzan, bizitza erlijiosoan eta ludikoan, Euskal Herri osoan zehar. Garai batean, gizonezkoak ziren soilik Euskal Dantzetan parte hartzen zutenak. Baina denboraren poderioz, emakumezkoak animatzen joan dira. Gaur egungo egoerara iritsi arte, non Euskal Herriko taldeetan gehien ikusten direnak emakumezkoak diren. Euskal Dantzak gehien bat herriko jaietan ageri ohi dira. Festetan ikus ditzakegun dantza asko eta asko azken 400 urteetan etenik gabe plazaratutako dantza berriak dira. Beste batzuk ordea, zaharragoak; XVIII. mendekoak hain zuzen. Baina, ez pentsa dantza guztiak mantendu direnik. Askotan mantendu dira, baina beste asko berriz, denboraren poderioz galduz joan dira, desagertu arte.

Gerra zibilean ordea, Euskal Kultura asko alde batera utzi behar izan ziren, horien artean Euskal Dantzak. Hauek talde gutxi batzuen esku geratu ziren, mundu landatarrean batez ere.

Baina denborak aurrera egin ahala, 40. hamarkadan hirietan taldeak sortuz joan ziren.

Aurrerantzean, herrietan ere taldeak sortuz joango dira. Eta ez taldeak soilik, baita egun bereziak (Dantzari Eguna), aldizkariak, erakunde iraunkorrak (Euskal Dantzarien Batzarra)... Horrela hasiko da Euskal Dantzen indarra areagotzen.

Gaur egun ordea, Euskal Herri osoan 250 dantza taldetik gora antzematen dira. Horien artean, Bizkaia da talde gehien

dituen probintzia, ia 100 taldeekin.

Dantza motak euskal herrian zehar

Euskal Dantzak, euskal kultura eta folkloreaken nahasketa bat dira. Euskal dantzak dantza tradizionala gizarte bizitza, bizitza erlijioso eta ludikoaren zati garrantzitsua izan dira Euskal Herrian, eta izaten jarraitzen dute noski.

Hiru dantza mota ezberdin daude:

- Erromeria edo plazetako dantza: kalean dagoen edozeinek parte hartu dezakeen Euskal Dantzetako dantza mota bat da. Hauek, jai eta erromerietan dantzatzen dira.

- Ezpata dantza: dantza hauek, ohorezko dantzak direla esan dezakegu, egun berezietan dantzatutakoak dira.

- Festa amaiera edo hasierako dantzak: dantza hauek, ziklo baten amaiera eta beste baten hasiera irudikatzen duten garaietan egiten dira. Esaterako inauteriak.

Euskal Herri osoan, ez dira dantza berdinak dantzatzen; badaude dantza batzuk probintzi batzuetan edo leku batzuetan soilik dantzatzen direnak.

Eredu bikain bat *agurra* izan daiteke. Dantza hau, jatorriz gipuzkoarra da. Talde osoak parte har dezake, aurrean buruzagi bat dagoelarik. *Agurran*, norberak bere baserriar jantzia erabiltzea da ohikoena, nahiz eta talde osoa berdinean jantzita ere joaten den.

Beste eredu on bat *zahagi dantza* edo *jorrai dantza* da. *Zahagi dantza* gipuzkoan dantzatzen da, baina nafarroako herrietan famatuagoa izan ohi da. Esaterako Goizuetan betidanik dantzatu izan den dantza



Goizuetan betidanik dantzatu izan da Zahagi dantza.



Hernanin ere badu bere garrantzia Dantzari egunak.

bat da. Dantza honetan ere talde osoak har dezake parte. Bi dantzari ilara egiten dira, dantzari bakoitzak eskuetan bi makil dituela. Erdian dantzari bat jartzten da, zahagi bat bizkarrean duelarik. Dantza honetan, jantziak zuri-gorri kolorekoak izan ohi dira. Erdian dagoen dantzariarena ezik; honen jantzia, urdin kolorekoa izan ohi da, txapel batekin buruan. Honen aurpegia beltzez margotuta edukitzen du, begien inguruan bi borobil gorriekin.

Ezpata Dantza ere eredu bikain bat da. Dantza hau Euskal Herri osoan dantzatzen da, baina Bizkaiko herrietan asko ikusiko duzue: Elorrión esate baterako. Dantza honetan ere bi dantzari ilara egiten dira, bakoitzak eskuetan bi ezpata dituela. *Ezpata Dantzan*, jantziak zuri-gorri kolorekoak dira, *Zahagi Dantzakoak* bezala.

Jantziak

Dantza bakoitzak bere jantzi propioa du eta Euskal Herri osoan ere ez dira jantzi berdinak erabiltzen. Dantzari guztiak ez dira berdinean jantzten, normalean bi jantzi mota ikusten dira gehien. Bi jantzi horien egitura honelakoa da:

- Buruan zapi bat erabiltzen da normalean. Ondoren, alkandora bat erabiltzen dute eta honen gainetik gehienetan korpino bat; kolorea dantzaren arabera izan ohi da. Gerriari loturik gona luzetxo bat daramate eta honen gainean amantala bat, poltsikoekin gehienetan. Gona luze honen azpian, azpiko gona bat eramaten dute, zuri kolorekoa; eta nahi izanez gero, baita pololoak ere. Bukatzeko, hanketan galtzerdi zuri batzuk eraman ohi dituzte, nahiz eta batzuetan dantza askotan erabiltzen ez diren. Galtzerdi hauen gainean, alpagata batzuk eramaten dira: zuri, beltz edo marroi kolorekoak.

- Buruan txapela bat erabiltzen dute, nahiz eta batzuetan buru inguruan zapi bat ere lotzen duten. Hauek ere alkandora erabiltzen dute (zuri kolorekoa gehienetan) eta batzuetan, baita txaleko bat ere. Gerriari lotuta gerriko bat erabiltzen dute, gehienetan beltz edo gorri kolorekoa. Ohikoena, galtza zuri edo beltzak erabiltzea izan ohi da. Jantzi mota hau erabiltzen dutenek ere zuri koloreko galtzerdi batzuk erabiltzen dituzte eta gainetik alpagata batzuk.

Dantzari eguna

Dantzari eguna hainbat herrietan Maiatzean ospatzen den jai bat da. Bertan, Euskal Kulturako dantza ezberdinak nagusitzen dira. Herri ezberdinetako talde eta dantzari txiki, gazte nahiz nagusiak kalez kale joaten dira kalejira bat osatuz eta bitartean dantzatuz.

Hernaniko dantzari eguna Informazio-iturriak

Nik artikulua hau egiteko erabili ditudan informazio-iturriak hurrengo hauek dira:

JANTZIAK:

<https://sites.google.com/site/euskaldantzakxaji/>

HISTORIA ETA DANTZA MOTAK

EUSKAL HERRIAN ZEHAR:
<https://www.hiru.eus/eu/cultura-vasca/danzas-tradicionales-vascas>

DANTZARI EGUNA:

<https://www.bilbaoturismo.net/BilbaoTurismo/es/ferias-vascas/dantzari-eguna>

Egilea:

Enara Kerejeta Iraolagoitia

Baleen arrantza, euskaldunon bizimodua

Euskaldunok baleen arrantzarekiko erakargarritasuna sentitu izan dugu, baina, nola sortu zen eta zer bilakaera izan du?

Zer zen baleetatik lortzen genuen gauza hain preziatua hainbeste arrantzatzeko? Balea-arrantzan ere denean bezala gauza bitxiak daude. Baina, hori ez da guztia, arrantza egiteko arrantzaleak, ontziak eta tresnak ere oso garrantzitsuak dira.

Arrantza ona izan!

Bale arrantzaren bilakaera

Euskaldunok X. mendean inguruan hasi ziren balea arrantzan. Noizean behin kostaldera inguratzen ziren baleetatik lortzen zuten etekina haundia zela ikusita, bale arrantzari ekin zioten.

Hasieran Bizkaiko golkoan egiten zen arrantza, baina, denbora pasa ahala bale eskasia izan zen eta XVI. menderako Terranova eta Groelandia aldera joan beharrean aurkitu ziren.

Gaur egun debekatuta dago baleen arrantza komertziala, hauen eskasia dela eta. 1986. urtean Nazioarteko Balea Batzordeak akordio bat sinatu zuen animalia ugaztun hauen arrantza komertziala geldiarazteko.

2018. urtean Japonia, Nazioarteko Balea Batzordetik atera zen eta baleak arrantzatzeari ekin zion. Japonia ez zen izan

batzordetik atera eta baleak arrantzatzeari ekin zion herrialde bakarra, Norvegia eta Islandia ere berriz hasi dira balea arrantzatzen.

Arrantzaleak, ontziak eta tresnak

Arrantza Bizkaiko golkoan egiten zenean marinela gutxi batzuk joaten ziren ontzietan. Ontzi horietan beti programatutako arrantza-jardunean gerta zitekeen balea-ehiza baterako prest irteten ziren. Baina, Terranova eta Groelandia ingurura joaten hasi zirenean berriz izugarriko marinela pilo joaten zen itsasontzietan. Jarduera horretan galeoi, txalupa eta pinazak erabiltzen ziren, arraunak eta haize-oihalak erabiliz mugitzen ziren ontziak.

Baleak harrapatzeke arpoiak erabiltzen ziren. Hasieran eskuzko arpoiak erabiltzen zituzten, baina gero arpoi mekanikoak erabiltzen hasi ziren.

Balearen ekarpenak

Balea arrantzatuta ondoren lehorra ekarri eta zatitu egiten zen. Balearen zati guztiak aprobetxatzen dira, hasi haragitik



X. mende inguruan hasi ziren euskaldunak baleak arrantzatzen.

eta bukatu bizarrekin.

Baleetatik lortzen ziren lehengaien artean koipea zen nagusi. Euskal baleak koipe etekin altua ematen zuen, pisua-ren %40 koipea baitu.

Gantza zen baleek ematen zuen produktu garrantzitsua, "sain" izenekoa. Eraikinak argitzatzeko eta berotzeko erabiltzen Europa osoan zehar. Gantza pertz haunditan sutegietan egosiz, lumera egiten zen, eta gehien bat argiterian erabiltzen bazen ere, beste eginkizun batzuetarako ere erabiltzen zuten, hala nola, jantziak irazgaitz bihurtzeko, xaboiak eta enplastuak egiteko, etab. Elizkizunetako argietan balearen gantza erretzea, ordea, desegokia zela uste zen; hain helburu sakratuak, finago eta garbiagoak

omen ziren oliba-olioa edo argizarizko kandelak erabiltzen ziren.

Bale bizarrak malguak, gogorrak, finak, luzeak eta ugariak ziren baita oso erabiliak ere. Aterki, kortse, etab. egiteko erabiltzen zen, apartekoa zelarik, malguki modura erabiltzen ziren haizemaileetan, emakumeen azpiko erropetan (hortik datorkie baleak izena garai bateko kortseei), euritakoetan, erlojuetan eta beste makina batzuetan.

Bizar horietako hezurak tresnen euskarriak egiteko erabiltzen ziren, batez ere aiztoenak egiteko.

Balearen hezurak, aldiz, parren euskarritarako, karea egiteko edota eraikuntzan erabiltzen zituzten.

Balearen okela fresko jaten zen, baina era berean, lehortu eta gazitu egiten zen, gero Europa osoan saltzeko. Ketu eta marinatu edo gatzunetan kontserbatzen zen ere (kasu honetan pasta esaten zitzaion).

Bitxikeriak

Balea arrantzak eta sagardoak lotura estua zuten. Euskal baleazaleek sagardoa eramaten zuten upeltegietan eskorbutoari (C bitaminaren eskasiak sortzen duen gaixotasun hilkorra) aurre egiteko modu bikaina baitzen. Bidaietan, sagardoz betetako kupelak eramaten zituzten, eta gero kupela horiek balea gantzez beteta ekartzen zituzten bueltan.

Egilea:

Añes Santamaria Santos

Sagardoa

Gerra zibiletik gaur egunera, familia giroko edaria izatetik izugarriko arrakasta izatera.

Zeri buruz ari naizen hitz egiten galdetzen ariko zarete ezta? Nola eta zergatik sortu zen sagardoa? Zer prozesu jarraitzen da? Zaila da gaur egun sagardorik gabeko ospakizun bat imajinatzea. Ah! Eta ez ahaztu, edalontzia hartu eta TXOTX!

Sagardoaren jatorria

Baskonian baskoiek *Phitarra* deitu eta askotan edaten zuten ura, ezta eta sagar egosiez osatutako edaria zen. Edari hori gaur egungo euskal sagardoaren arbasoa litzateke. Sagarei eta sagarrondoei buruzko lehenbiziko datu idatziak X. mendetik aurrerakoak dira baina inork ez daki noiz agertu zen sagardoa Euskal Herrian. Gaur egun arte topatu den antzinakoena 1014eko apirilaren 17an idatzitakoa da.

Esaten da garai bateko ura ez zela edangarria eta baserri eta herriko familiak horregatik hasi zirela sagardoa egiten.

Prozesua

Udaberrian loratzearekin hasten da prozesua. Lehenbiziko lanak belarra moztea eta uzta zaintzea izaten dira. Uztaren biltzea irailean hasten da eta abendura arte irauten du. Heldutasun mailaren eta bariatateen arabera biltzen da sagarra. Gehien bat etxeak ibiltzen dira eskuz biltzen laguntzaileen borondatearekin. Ondoren sagardotegiko lanak egiten hasten dira: sagarrak garbitu, lehertu (Azala errespetatuz, mamiak duen eremu zehatz batzuk lehertzea) txikitu eta tolarera bidaltzen dira prentsatzeko. Prentsaketa

hasi aurretik, *patxa* (txikitutako sagar pasta) denbora jakin batez biguntzen uzteko ohitura dago. Biguntze prozesu honen iraupena baldintza klimatologikoen arabera izango da, hau da, gero eta bero gehiago egon, denbora gutxiago beharko du, aldiz, bero gutxi badago, denbora gehiago beharko du. Bero baldintzetan (adibidez: hego haizea) normalki 5-10 orduko biguntze bat nahikoa izango da, hala ere egun hotzetan 15-20 ordutan. Handik kupeletara pasatzen da edaria, era naturalean fermentazio prozesuarekin hasteko. Horrela 4-5 hilabete igaro eta gero, sagardo bihurtzen da, eta puntu egokira iritsitakoan botilaratzeko prest dago.

Guztira bost fase ezberdinetatik pasatzen da: zuhaitzean heldu, sagarra ondo garbitu, lehertzea, prentsaketa eta botilaratzea.

Gaur egungo joerak

Sagardotegietako denboraldia urtero urtarrilaren 19an hasten da. Egund honetan urteko lehen-



Gerra zibiletik gaur egunera, bilakaera izugarria izan du sagardoak.

biziko txotxa egiten da. *Sagardoaren denboraldia* urtarrilaren erdialdetik apirilaren amaiera eta maiatzaren hasierara arte izaten da. Aldi honetan sagardoa txotxetik edan daiteke. Aldiz, urte osoan zehar botilatik edaten da.

Sagardotegi haundiek antzinako xarma galdu dute eta jate-txe moduko zerbait bihurtu dira. Sagardotegiko berezko giroaz gozatzeko, onena sagardotegi txikiren batera joatea da. Bertan sagardotegiko menua zerbitzatzeko dute, hau da: bakailao tortilla, bakailua eta txuleta.

Ospakizunak:

Gipuzkoako hainbat udalerritan

urtero *Sagardo Eguna* ospatzen da: Astigarraga, Hernani, Usurbil, Orereta, Lezo, Oiartzun, Pasai Antxo... Ipar Euskal Herrian ere, Baionan, Sagardo Eguna urtero ospatzen da baina ospetsuenak Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbil udalerririk dira euskal sagardoaren gune indartsuena osatzen dutelako. Eskualde honetan Euskal Herriko sagardotegi kontzentrazio handiena dago. Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilen (udalerririk ospetsuenak) sagardo denboraldian nahiko arrakasta izaten dute.

Egilea:

June Ruiz Belategui

Kontrabandoa

Ipar eta Hego Euskal Herriko legez kanpoko sal-erosketei deitzen zaio kontrabandoa. Kontrabandoa lan bat zen, fabrikara joatea bezala.

Baserriko lana egiten zuten, gero kontrabandoa gauez, eta lo egunez. Urteetan zehar, leku batean baino gehiagotan egiten zen. Material asko garraiatzen zuten, horrela, hilabeteetako dirua irabazten zuten. Guardia Zibilak ez harrapatzeko teknika batzuk zituzten: batzuk pailazoz janzten ziren eta besteak txistu egiten zuten. Askotan mendian galtzen ziren, beraz, kontuz eta ez galdu testu honetan!!

Sorrera eta amaiera

Ez zen fabrikarik ezta lanik ere, beraz, kontrabandoan hasten ziren. Baserriko lana egiten zuten, eta gero, gauean, kontrabandoa. Garai hartan merkeagoa zen menditik ekartzea, zergak edo aduanak ordaintzea baino, aduanetan dezente ordaindu behar zen eta. Frantziako mugan zigilua jartzen zioten baina gero ez zuten kontrolatzen.

Euskal Herriko iparraldetik hegoaldera garraiatzen zuten, Euskal Herriko iparraldekoak eta hegoaldekoak kontrabandoari esker bizi izan ziren 1940 eta 1970 urteen artean. Euskal

Herriko iparraldean eta hegoaldean prezio diferentzia eta produktu eskaintza gutxi zegoelako garraiatzen zituzten iparraldetik hegoaldera.

Gero, kontrabandoa gutxitu egin zen eta jendea Frantziara eta Ameriketara joan zen oihauean zuhaitzak moztera. Fabrikak ere hasi ziren beraz, lana bazegoenez jendea fabriketan lanean ere hasi zen.

Teknikak

Kontrabandista batzuk, igandeetan mozturroak hartu, pailazoz jantzi, eta guardia zibilekin ibiltzen ziren, mugan. Haiekin disimulatzen zuten, pentsa zezaten beti parrandan ibiltzen zirela. Ez egunero, baina hilabeteetan behin edo joaten ziren.

Beste batzuk erabiltzen zuten teknika, kontrabandoan ibiltzen zirenetatik bat (indar gutxien zuena edo ibili ezin zena) zaintzen geratzen zen besteak kontrabandoan ibiltzen ziren bitartean. Zaintzen ari zenak txistu egiten pasatzen zuen gau guztia eta norbait gerturatzean gelditu egiten zen, zergatik ez norbait



Baserriko lana egiteaz gain, gauean kontrabandoan ibiltzen ziren eta egunez egiten zuten lo.

azaltzean txistu egin? Norbait azaltzean txistuka hastea oso susmagarria delako. Hamar pertsona baziren normalean, bat errepidea edo bidea zaintzen geratzen zen zamarik gabe.

Kontrabandistek ezin zuten beraien artean hitz egin kaletik zihozten bitartean, jendearentzat susmagarria izan zitekeen eta. Beraz kontrabandistek ze gauetan zegoen kontrabandoa eta ze gauetan ez zegoen jakiteko, herriko plazan bizi zenak arropa lehortzeko tokian zapi gorria edo zapi txuria jartzen zuen "lehortzen". Zapi gorria bazegoen gau hortan kontrabandoa zegoela esan nahi zuen. Zapi txuria bazegoen gau hortan ez zegoen ezer.

Zergak edo aduanak ez ordaintzeko modurik onena mendiko bidexketatik joatea zen.

Mendian txikitatik ibiliak zirenez, oso ondo ezagutzen zituzten bideak. Gauez, iluntasunean pasatzen zirenez askoz errazagoa zen guardia zibilak konturatu gabe pasatzea.

Kontrabandoan nola hasten ziren

Ostatuan edo tabernetan zeuden kontrabandistek umeei lantxoak ematen zizkieten: Paper bat eramateko etxe batera, kale bateko farolak harriekin puskatzeko... 50 zentimo edo pezeta baten truke, horrela hasten ziren kontrabandoan, beraiek gustura egiten zuten.

Garraiatzen zutena

Errodamenduak, kobrea, kamioien ardatzak, gurpilak, iratzargailuak, kristalezko galtzerdiak, kafea, almendrak, te-

lebistak... Garraiatzen zituzten. Askotan ez zuten jakiten zer zen ere, baina gehienek armak edo drogak zeudela ikustean nagusiari horrelakorik gehiago ez ekartzeko esaten zioten beraiek, nahiz eta kontrabandoan ibili garbi ibili nahi baitzuten.

Lortzen zutena

Ez ziren gauero-gauero lanean ibiltzen, baina hilabete osokoa, agian, bi edo hiru gauetan irabazten zuten. Adibidez fabrika 2.000 pezeta irabazten ziren hilabetean, eta kontrabandoan bidaia bakar batean 1.000 pezeta. Beraz, denak zeuden noiz deituko zain.

Egilea:

Olaia Lete Goñi

Olerkiak

*Nik orkestra bat dut bihotzean,
Din-dan-din-din-dan,
Alaitasun fabrika bat ematen du.*

Sarai Royo

*Nire bihotzean familia daukat,
Lagunak, jendea.
Egurrez dago egina nire bihotza.*

Zuhatz Tapia

*Eguzkia zaitut
Eta bizitza argitzen didazu.
Ekaitza zaitut
Eta nire haserreak lehortzen dizkidazu.*

Zu zaitut

Eta bizitza alaitzen didazu.

Nahia Alcubilla

*Gure besoak garbitasunaren artean daude.
Gure zangoak mundu polit honen gainean.*

Gure azala artile leuna.

Gure bekokia laku lasaia

Gure bizitza errusiar mendia duzu.

Gure geroa istorioa sitestezin bat.

Manex Plazaola

Ilargia zaitut

Eta gauak argitzen dizkidazu.

Beroa zaitut eta gauak epeltzen dizkidazu.

Elurra zaitut eta oroimena zuritzen didazu.

Asko maite zaitut ... eta nirekin nahi zaitut.

Garazi Gurrutxaga